

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2183

AGINDUA, 2017ko apirilaren 10ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez Donostiako (Gipuzkoa) Eva-Enea etxea (Aldama-Enea jauregia) monumentu-kategoriako kultura-ondasun gisa inskribatzen baita Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, Kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituen.

Donostiako (Gipuzkoa) Eva-Enea etxeak (Aldama-Enea jauregia) kultura aldetik duen interesa ikusita eta haren kultur balioan oinarrituta, eta indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraituz, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak erabaki zuen Eva-Enea etxea (Aldama-Enea jauregia) Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian sartzeko espedienteari hasiera ematea, 2016ko urriaren 17ko Ebazpenaren bidez (urriaren 21eko EHAAn argitaratu zen, 200. zenbakian).

Espediente horren administrazio-izapidean, jendaurrean jarri zen espediente, eta interesdunei entzunaldia emateko epea ireki zen, betiere lehen aipaturiko 7/1990 Legearen 17. eta 11.3 artikuluetan eta harekin bat datozen gainerako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia emateko izapidea irekita, «Áncora» elkarteak alegazio-idazkia aurkeztu zuen.

Behin aurkeztutako alegazioak aztertuta, erantzuna eman zaie, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako txosten teknikoaren bidez (txostenok espedientean daude).

Txosten horietako ondorioak ikusita, partez baiesten dira aurkeztutako alegazio batzuk, eta, beraz, II. eranskineko eta III. eranskineko alderdi batzuk aldatuko dira (II. eranskinean, lehenengo solairuko zokalo zeramikoaren eta bainugelako sabai-zuloen deskribapen berria eginez; eta III. eranskinean, beheko solairuko bainugela sartzeko da), Donostiako (Gipuzkoa) Eva-Enea etxea (Aldama-Enea jauregia) monumentu-kategoriarekin Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian inskribatzeko.

Hori guztia dela eta, aipaturiko 7/1990 Legearen 17. artikuluan oinarrituz, aintzat hartuta Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen proposamenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Donostiako (Gipuzkoa) Eva-Enea etxea (Aldama-Enea jauregia) Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian inskribatzea, monumentu kategoriako kultura-ondasun gisa.

Bigarrena.– Ondasun horren deskribapen formala egitea, agindu honen I. eranskinean agertzen den mugaketaren arabera, II. eranskineko deskribapenarekin bat etorriz, eta III. eranskineko Esku-hartze Baimendunen Erregimenari jarraituz, betiere Euskal Kultura Ondareari buruzko Legean ezarritakoa betetzeko.

Hirugarrena.– Agindu honen berri ematea Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Laugarrena.– Eskaera egitea Donostiako Udalari, higiezin hori babes dezan udal hirigintza-plan-gintzan sartuz.

Bosgarrena.– Agindu honen berri ematea interesdunei, Donostiako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuari eta Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuari, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari ere.

Seigarrena.– Inskribatze-agindu hau argitara ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Inskribatze-agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erki-degoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari, bi hilabeteko epean, agindu hau azkenekoz argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 10a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

MUGAKETA


a) Mugaketaren deskribapena

Mugaketak eraikina bera eta haren ingurua barne hartzen du. Horrela, eraikinaren partzela pribatuaren mugek ezartzen dute mugaketa-eremua.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Donostiako (Gipuzkoa) Eva-Enea etxearen (Aldama-Enea jauregia) ingurumen-balioak eta bisualak gorde beharrak justifikatzen du proposatu den mugaketa. Ingurunearen mugaketa beharrezkoa da katalogatutako ondasuna behar bezala babesteko eta balioesteko, eta berarekin batera dakar eraikinaren inguruko lurak eta sarbidea babestea, eraikinaren berezko izaera gordetze aldera. Horregatik, mugaketak eraikina bera ez ezik haren ingurunea ere barne hartzen du.

2017ko maiatzaren 3a, asteazkena



ESKALA / ESCALA 25 12,5 0 25 Meters 		EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO <small>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA Kultura Ondarearen Zuzendaritza</small> <small>DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA Dirección de Patrimonio Cultural</small>	
Planoa / Plano: EVA-ENEA ETXEAREN MUGAKETA		Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA	Data / Fecha: 2017/04/10 10/04/2017
		Udalerria / Municipio: DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	Eskala / Escala: 1:1.000

II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Eraikinaren forma karratua dela esan daiteke, eta 20 bat metroko luzera dauka. Bolumen prismatikoa da, zeinetan nabarmena baita ipar-mendebaldeko ertzean dagoen dorrea, eraikinak hirian daukan presentzia azpimarratzen baitu.

Iparraldeko fatxadaren osaerari dagokionez, hiru horma-atal ditu; bi horma-atal estu ditu alboetan, eta beste bat erdialdean, zeinak baorik gehienak hartzen baititu. Beheko solairuan, sarrerako logia zirkulu Erdiko bost arkuk osatzen dute; pilastrak daude arkuen artean eta zerrenda apaingarri bat daukate inguruan. Alboetan bi leiho hirukoitz ditu, serliana eran. Lehenengo solairuan, erdialdean, hiru leiho oso apaindu ditu, eta alboetan fabrikazko bi balkoi. Bigarren solairuan, erdialdean, arku-multzo bat dago; bost leiho bikoitzetan daude antolatuta arkuak; leihoek maine bat dute, eta pilastra erromatarren artean kokatuta daude. Ezkerrean, arku hirukoitz bat dago, eta eskuinaldean, berriz, bi bao, eta haien artean familiaren armarrria. Dorrea ipar-mendebaldean dago, eta zirkulu Erdiko hiru bao ditu, alde banatan bi pilastra dituztela, idulki jarrai batean, erlaitz irten dentikulatuaren gainean. Pinakuluak ditu dorreak erremate gisa, eta Salamancako Monterrey jau-regikoa gogorarazten du. Idulkiak jarraipena dauka fatxadan, eta eten egiten da ezkerrean; han ere pinakuluak daude erremate gisa.

Mendebaldeko fatxada iparraldeko fatxada nagusia baino irregularragoa da; izan ere, bolumen irtenak ditu; kaperarena, ezkerrean, eta bigarren mailako eskailerarena, erdirago. Kaperaren kanpoaldeko bolumena poligonala da, eta gainaldean kareldun balkoi bat osatzen du. Balkoi horretara, fatxada nagusiko balkoietako moduko bao bat irekitzen da, eta bertan hiru leiho daude. Dorreak errematatzen du fatxada alde horretatik. Irtenda dagoen bolumenean, eskaileraren bolumenean, leiho hirukoitz bat dago, eta leihoaren gainean, azken solairuan, zirkulu Erdiko bao bat dago, albo banatan pilastrak dituela. Bi pinakulu handi errematatzen dute bolumen hori. Bolumenaren alboetan, beheko solairuan, bi bao sinple daude; lehenengo solairuan, bao apainduak, eta bigarren solairuan, ezkerrean, fatxada nagusiko arku-saila errepikatzen da, lau baorekin, eta, eskuinaldean, terraza txiki bat dago.

Hegoaldeko eta ekialdeko fatxadak xumeagoak dira, eta ez daukate beste bien garrantzia. Hegoaldeko fatxadak leiho-bao erregularrak ditu, eta fatxada horietan nabarmentzekoak dira hego-mendebaldeko ertzeko terraza, eskailera nagusiaren bolumena –beirateriaren zirkulu Erdiko baoarekin– eta hegoaldeko sarrera, aurretik balaustredun balkoipean zutabedun portxe txiki bat duela. Ekialdeko fatxada leiho-bao erregularrez osatuta dago; sinpleak dira behealdekoak, eta apainduak lehenengo solairukoak; eta bigarren solairuan, berriz, goialdea apainduta daukaten lau leiho bikoitz daude.

Eraikinak terraza bat dauka iparraldeko fatxadan. Iparraldeko atari edo logiatik hall nagusira sartzeko da, eta, hortik, beheko solairuko eta lehenengo solairuko geletarako sarbidea dago. Eskailera nagusiak lotzen ditu bi solairu horiek. Bigarren solairua, hasiera batean, etxe-zerbitzurako zen. Solairu guztiak daude komunikatuta mendebaldean kokatutako zerbitzuko eskaileraren bidez.

Eraikinaren egiturari dagokionez, karga-horma perimetral bat dauka, harlanduz egina, eta horren paraleloan, antzeko beste bat dauka barrualdean, eta horma horiek dira solairuen euskarri. Lehenengo solairuko galeria eta bigarreneko korridorea, berriz, halleko zutabeen eta haien uztai-habeen gainean bermatzen dira.

Kontserbatu diren espaziorik baliotsuenak dira hall nagusia, eskailera nagusia, sarrerako ataria, hegoaldeko sarbidea, kapera, ipar-ekialdeko gela eta beheko solairuko bainugela.

Sarrerako atarian zokalo zeramikoa dago, andaluziar erako azulejuekin. Azulejuek lore-motiboak eta motibo geometrikoak dauzkate elkarlotuta; urdinxkak dira batez ere, eta seguruenik Sevillako Mensaque fabrikakoak. Nabarmentzekoa da atarian zorua ere; baldosa prentsatu gorrikoa eta *olambrilla* zurizkoa, zenbait motibo urdinekin. Atariko logiako leihoek beirateak dituzte. Hallera sartzeko atea bi orrikoa da; burdina forjatuzko barrote bertikalak ditu, balaustre estilizatu formarekin. Atondoko bi leihoak, eta iparraldeko fatxadako eskuinaldean dagoen leihoa, burdin sare batez babestuta daude, sareta karratu formakoa, diagonalean jarria, burdina forjatuz egina, eta goialdea erroleo eta floroiz apaindua.

Hall nagusia da etxearen gunea. Altuera bikoitza dauka, oktogonala da eta zortzi zutabe ditu solairuko. Hall nagusiko beheko solairuko zutabeak marmol artifizialez eginak daude, eta kapitelak estilo «korintoar» berezikoak dira, zeintzuetan boluten orde z giza-figura batzuk jarri baitira; banaketa-zapata bat daukate goialdean, modilo bikoitzarekikoa, lautua, gaztelar erakoa, baina angelua taulamenduaren forma oktogonalera egokituta. Lehenengo solairuko balkoi korrituaren taulamendua erroleo begetal finez apainduta dago, giza irudi kasko errenazentistadunak tartekaturik daudela; zerrenda horren gainean balaustre zuriak daude jarriak, perimetro guztian. Balkoi korrituaren azpiko tauladuraren motiboak –erroleo begetal finez apainduak, etab.– errepikatu egiten dira lehenengo solairuko barrualdeko banaketa-perimetroan. Lehenengo solairuko zutabeen kapitelak korintoarrak dira eta taulamendua haien gaineko modilo bazuetan bermatzen da. Beheko solairuko galeria giza-irudi eta errolez apainduta dago. Ateak ageriko egurrezkoak dira beheko solairuan, arku karpanelekin errematatuak (ate nagusiak), eta zirkulu erdiko arkuekin bigarren mailakoak; moldurak eta erliebezko irudiak dauzkate. Lehenengo solairuan, ateburudunak dira ateak, eta zuriz pintatutako egurrez molduratuak. Halleko hormek zokalo zeramikoa daukate, eta barroko toledoarrean oinarritutako motiboak dituzte: zurtoin eta orrizko erroleoak, figura zoomorfoak eta gerrari eta guduen irudiak, kobalto-urdina nagusi dela, baina bazuetan kolore biziagoak dituztela. Lehenengo solairuko zokalo zeramikoak figura geometrikoak dauzka, kasetoidurako erliebeak, diamante puntak, etab. imitatuz. Beirate batek halleko sabai-leihoa estaltzen du. Garrantzitsua da, haren tamaina eta aberastasun tematikoa aintzat hartuta. Egitura erlaitzaren ertz oktogonalean bermatzen da. Beiratearen inguruan eskaiolazko dekorazio bat dago. Beirateak Rubensen lanetatik ateratako zenbait motibo mitologiko dauzka. Hallaren mendebaldean, beheko solairuan, tximinia bat dago, goialdean armari bat daukala.

Beheko solairuan zein lehenengoan eskailera nagusira sartzeko baoak daude, eta haien alboetan mentsula bikoitz altuak, pilastra itxurako molduren gainean. Eskailera nagusia marmol zurizkoa da, eta motibo begetalez zizelkatutako balaustreak ditu. Eskailera nagusiko beiratea tranpalaren parean dago kokatuta, forma bertikala dauka eta zirkulu erdiko arkua dauka goialdean, eta alboetan, berriz, moldurak eta igeltsu-apaingarriak dauzka. Zaldun bat ageri da, XVII. mendeko janzkerarekin, eta forma xumedun marko edo zerrenda apaingarri bat dauka, tonu argi eta beroak dituena.

Eraikinak sarbide bat dauka hegoaldeetik. Bertan, burdina forjatuzko saredun ate aberats bat dago, inspirazio errenazentistakoa; goialdean, arku karpanela dauka, panel bat duena (AA) inizialekin (bigarren jabeena), alboetan errolez apaindua. Hegoaldeko sarrerako ateko beirateak paisaia-motiboak eta beste era bazuetaoak dauzka. Azpimarratzekoa da sabaia, kasetoidura urre-kolorekoarekin apaindua, apaingarri askorekin, oktogono bat osatuz atondoaren erdian, beirazko lanpara oktogonalaren plafoiaren marko gisa. Hegoaldeko sarbideko hormak dira, seguruenik, dekoratuenak, moldura eta apaingarri begetal, geometriko eta arkitektonikoekin, eskaiolazkoak. Burdinazko ateak bi pilastra korintoar ditu alboetan, atearen altuera osoa hartzen dutenak, eta

zezen irtengune eta erlaitz dentikulatuaren arteko friso aberats bati «eusten» diote. Alboetako hormak behe-erliebean egindako kasetoiz apainduta daude, eta bi horma-hobi ere badira, aurrez aurre jarriak eta frontoi batekin errematatuak.

Hego-ekialdeko gelan (langela zen jatorriz), nabarmentzekoa da hormetako igeltsu-lana.

Kapera jangela zen jatorriz, eta, bertan, nabarmentzekoak dira hormetako igeltsu-apaingariak. Ukitu ponpeiarra dauka, eta ukitu hori ematen diote, batetik, espazioen arteko zutabeek (bata, oinplano karratukoa, eta, bestea, poligonala, exedra gisa hondoan), beren kapitel korintoar urre-koloreko eta guzti, eta, bestetik, hormen estaldurak, zeta-paper berde eta irudi erronbikodunak.

Lehengo bainugeletatik, beheko solairukoa ia oso-osorik mantentzen da; baina hori ere aldatu egin da hasieratik hona. Egungo dekorazioa 1931koa omen da, eta, dauden datuen arabera, seguruenik, Eduardo Lagarde arkitektoak diseinatutakoa da. Gaur egun, onize orri berde eta laranja jantzia dago, eta kupula bitxi bat dauka, dibisioz –galloiak bailiran–, lore-erliebez eta akabera metalikoz dekoratua. Leihoak «art déco» beiratea dauka, kolore grisaxkakoa, eta oso xumea eta atsegina da; loredun pitxer bat irudikatzen du, eta bat dator gainontzeko dekorazioarekin. Lehengo bainugela bateko beste beirate bat estalkira sartzeko atean kokatuta zegoen, eta loro bat irudikatzen du.

III. ERANSKINA

BABES-ERREGIMENA

1.– Oso-osorik mantendu behar dira jauregitxoan dauden kanpoko formak: bolumenak, terrazak, eskalinatak, elementu arkitektonikoak, esate baterako, leihoak eta haien markoak, balkoien eta terrazen karelak, moldurak, pinakuluak eta beste batzuk, baita leihoen burdin sareak ere, betiere fatxada guztien osaerari eutsiz.

2.– Ezin da instalazio edo eraikin berririk egin finkaren lorategi edo baso esparruan, baldin eta eraikina estaltzen badu eta hiritik argi eta eragozpenik gabe ikustea galarazten badu.

3.– Barruan, babestu beharreko alderdi eta elementutzat hartzen dira:

– Irizpide orokor moduan, eraikinak ordezkatzeko duen momentu kulturalari (XVIII. mende amaierako eta XIX. mende hasierako eklektizismo historizista eta nazionalista) dagozkion elementu eta forma arkitektoniko eta dekoratiboak gordetzen dituzten barneko gela guztiak, egungo birbanaketaren aurretikoak, bai eta XX. mendearen lehen hereneko «art déco» delakoari dagozkionak, berezko elementu eta forma guztiak barne hartuta.

– Eraikuntza-mota bera: habearte kontzentrikoduna eta bi altuerako banaketa-patio edo atondoarekin, goiko eta beheko espazio eta galeriekin, eta bere elementu eta guzti, esate baterako, itxitura perimetralak, zutabeak, apaindurak eta estaldurak, batez ere, zokalo zeramikoak, eta sabai-leiho handia.

– Eskalinata nagusia, bere espazio edo kaxa, bere jatorrizko elementu eta apaingarri guztiekin, balaustredun baranda, beiratea, moldurak, etab.

– Iparraldeko atondoaren espazioa, bere jatorrizko elementu eta apaingarri guztiekin; bankadak, zokaloak eta gainontzeko estaldura zeramikoak, burdin-sareak, etab. barne direla.

– Hegoaldeko sarreraren espazioa, bere jatorrizko elementu eta apaingarri guztiekin; kasetoidurak, floroiak, horma-hobiak, moldurak, burdinazko atea, etab.

– Beheko solairuko bainugela, bere elementu eta apaingarri guztiekin.

– Lehenagoko jangelako (kapera) gela poligonal edo exedra, bere zutabeak oso-osorik hartuta eta bertan kontserbatzen diren jatorrizko elementu eta apaingarri guztiak.

– Ipar-ekialdeko ertzeko gelako hormetako igeltsu-apaingarriak.

– Atondoko tximinia eta bere apaingarriak.

– Bi solairuetako gainerako arotzeria-elementuak, errementaritze-elementuak eta zoru, horma eta sabaietako estalduretako elementu guztiak: atekak, friso edo zokaloak, zoladura zeramikoak, azulejoak, igeltsu-apaingarriak, beirateak, burdin saredun atekak eta gainontzeko apaingarri metalikoak, II. eranskinean azaltzen den deskribapenaren arabera.

– Kontserbatu diren edo errekuperatu daitezkeen altzari guztiak, baldin eta jauregiak ordezkatzeko duen garai historikoaren dekorazioaren osagai izan badira: bankadak, mahaiak, luminariak, pitxerrak, etab.